

Literatura →

Plath, poesia oihukatua

Alex Gurrutxaga

Poesiazaleek gustura behar dute, Denonartean argitartzeak Sylvia Plathen obra nagusia argitaratu baitu, *Ariel*, Iñigo Astizen itzulpenarekin. Edizioa elebiduna da, eta bi atal bereizten ditu, kriterio egokiak: batetik, *Ariel*—idazlearen izkribuko poemak, 1961-62koak—, eta, bestetik, *Beste Ariel*—bere senar ohiak artean sartutako poemak, gehienak 63koak—. Horrez gain, itzultzailearen hitzaurrea dago, eta poemetan, hainbat ohar. Plathen poesiara hutsetik sartzea ez da batere erraza, eta kokxa hori bi modutan gainditu dezake liburua: testuan ohar asko sartuz—literaturazale batzuentzat sakrifizioa dena—edo hitzaurrean obraren testuingurua azalduz. Azken horren falta sumatzen da: hitzaurrea oso txukuna da, baina eskas geratzen da, eta esango nuke testuingurua sakonago esplikatuz gero irakurlea errazago sartuko litzatekeela Plathen poesian.

Ziurrenik, zaila da jakitea Sylvia Plathen obraren oihartzunak zenbat zor dion poesiari eta zenbat testuinguruari. 1932an jaio

zen, eta, 1963an bere buruaz beste egin zuen arte, suizidio saio bat egin, ezkondu, bi seme-alaba izan, dibortziatu eta arazo psikikoak izan zituen. Horrela esanda, sinplista eta morbosoa da, baina horrek guztiak poetaren obra erabat baldintzatu zuen.

Plathen poesia aztertu dutenek *poesia konfisionala* dela esan izan dute. Gaiak lantzeko—amatasuna, heriotza, gorputza, gaixotasuna eta, batez ere, gauza mingarriak—autobiografiatik abiatzen den poesia da, batez ere alderdi psikologikoari heltzen diena, eta garai hartan tabuak ziren gaiak jorratzen ditu: eromena, sexua, suizidioa eta abortoa, adibidez. Robert Lowell eta Anne Sexton dira korronte horretako beste bi ahots nabarmen, eta Alda Merini italiarra ere aipagarria da—Plathen garaikidea—.

Denise Levertov poetak, 1984ko elkarrizketa batean, hauxe zioen Plathen poesiari buruz: «Uste dut aparteko dohaina zuela irudietarako; irudigile biziki inspiratua. Horrek salbatzen zituen haren poemak terapeutikoak soilik izatetik». Inondik ere, Sylvia Plathen poesiaren indarra bere

irudietan kontzentratzen da batez ere, hizkera poetiko metaforikoan. Irudi segida etengabea da, eta zenbait ezaugarri formalek—bereziki zangalatrauak—jarrakortasun hori indartzen dute. Hona *Ardiak laino artean* poemaren zati bat—bertan ni poetikoa zaldiz doa—: «O, herdoil koloreko / zaldi geldoa, // apaxak, ezkil mingarriak— / belzten pasa du / goiza goizak, // bazterutako lore bat».

Konfisionala bai, baina harago doa Plath, eta sozialetik ere badu poemategiak. Gai gisa aipaga-



'ARIEL ETA BESTE POEMA BATZUK'

- **Egilea:** Sylvia Plath.
- **Itzultzailea:** Iñigo Astiz.
- **Argitaletxea:** Denonartean.

rriak dira, besteak beste, patriarkatua (*Aitatxo*), emakumetasuna (*Hibernatzen*) eta amatasuna (*Emakume antzua*)—kontuan izan behar da Plathen garaian gertatzen ari dela *Bigarren Olatu Feminista* deitua—. Gaiok maila soziala hartzen dute: hainbat poematan ni poetikoak kolektibotasuna bilatzen du, eta esperientzia pertsonala unibertalerako bidean jartzen da. Adibidez, honela hasten da *Hautagaia* poema: «Ezer baino lehen; gureetako zara? / Ba al daramazu / kristalezko begirik, ordezkoko haginik (...) Ez, ez? Orduan, / nola emango dizugu guk ezer?».

Iñigo Astizek dio mina soilik ezetz, bizitza ere badagoela Plathen poesian. Halaxe da. Halere, Plathentzat *thantos*a bizitzaren osagai funtsezkoa zen; haren poesia oihu bat da, poetari, amiltzen ari delarik, ahots korreak tentsioan eta begiak oraindik bizitzaz bete-bete eginda, barrutik kanpora lehertzen zaion oihua: «Herr Jainkoa, Herr Luzifer, / erne, / erne. // Hauts artetik / nire ile gorriaz erne, / eta airea bezala irensten ditut gizonak».



'JESUSEN HAURTZAROA'

- **Egilea:** John Maxwell Coetzee.
- **Itzultzailea:** Aritz Gorrotxategi.
- **Argitaletxea:** Meettok.

J.M. Coetzee Nobel saridunaren azken nobela euskaratu du Aritz Gorrotxategi Meettok argitartzearentzat. Gizon bat eta haur bat toki batera iritsi berriak dira. Ez dira aita-semeak, baina haurren ardura du gizonak. Badi-rudi erbesterauak direla, baina ez dago argi nondik datozen...



'PIZTIAK ETA PIZTITZARRAK'

- **Egilea:** Saki (Hector Hugh Monro).
- **Apailatzailea:** Xabier Monasterio.
- **Argitaletxea:** Erroa.

Euskara Errazean bilduman argitara eman du Erroa argitartzeak Sakiren ipuinez osatutako liburu hau, egungo arauetara eta irakurketa errazaren molde- etara ekarria, sail horretako liburu guztiak bezala.



'EROS TREN TXINATAR BATEAN'

- **Egilea:** Rene Depeste.
- **Itzultzailea:** Joxean Elozegi.
- **Argitaletxea:** Igela.

EROS tren txinatar batean ipuin bilduma «liburu erotikoa» da, itzultzaileak azaldu duenez. «Baina, nolana ere, liburu erotikoa honen funtsa agertzen da Depesteren obra guztian: egileak emakumeekiko sentitzen duen lilura».

↓ Haur eta gazte literatura

Liburu bihurri bat

Bazen behin liburu bat irakurlea dibertitzeko asmoarekin plazaratu zena.

Bazituen gordeta pertsonaia eta lekuak, bazituen uneak eta gertakariak.

Bazuen bilduma bat, Xaguxar, eta bazuen irakurlearen gutxieneko adin bat, 10 urte—jakinik muga lausoa zela eta bera igual saiatuko zela 7 urteko irakurle baten zein 77 zuten baten irria zabaltzen, mundu guztia dibertitzeko gogoak akulatuta baitztorren—.

Erosotasunari garrantzia eman nahi zionez, bere burua hogeita lau ataletan banatu zuen. Denak labor-laburrak



'EULI BAT DUT BIHOTZEAN'

- **Idazlea:** Leire Bilbao.
- **Ilustratzailea:** Maite Gurrutxaga.
- **Argitaletxea:** Elkar.

—batez beste hiru orrialdekoak, marrazki eta guzti—.

Hurrena, jendaurrean elegante agertu behar zuela otu zitziona, eta literatura unibertsar-lari erreferentzia egingo ziola erabaki zuen—zeri eta Kafkaren *Metamorfosia*-ri!—.

Bihurria ere bazenez, liburuak pertsonaia guztiak jarri zituen kontalari, txandaka: Gorka, Itziar ama, Iñaki aita, Miren arreba. Aitonarekin salbuespena egin zuen, halako lan nekosoan adintsu bati ematea bidegabea zatekeelako edate.

Ilustrazioa konfiantzazko lagun bati enkargatu zion, zer gerta ere.

Inpentako beharginari azala tapaki mehez egiteko agindua eman zion, bere burua arindu nahian arindu nahiaz. Marrazkiak koloretan, merezi zuten eta.

Irakurleek, liburu esku artean hartu zutenean, eskertu zuten asmoa, barkatu zizkioten pertsonaien funts ahula eta ahots monokromoa eta, guztiaren gainetik, goratu zuten liburu bihurri hari zerion goizeko freskurren usaina. ■ **IMANOL MERCERO**

Kafearen jatorria

U saina falta zaito bere jite berezia bikaina bihurtzeko, kafea, kafe lurrina.

Komikia Degruel frantziar egileak atondu du, kafearen sorrera kontatzen duen Etiopiako elezahar batean oinarriturik.

Pertsonaia haur entzuleak eta aitona kontalaria dira, denak etxolan sarturik, ahuntz burgoi baten konpainian. Haurrek ipuina kontatzeko eskatuko diote aitonari: «Istoria bera berriz? Buruz dakizue eta...», esango die, baina haurrek huraxe nahi dutela eta...

Irudigileak kontakarako hurrearen eta edari beltzaren kolore-



'SABA ETA LANDARE MAGIKOA'

- **Idazlea eta ilustratzailea:** Yann Degruel.
- **Itzultzailea:** Ibon Plazaola.
- **Argitaletxea:** Ttartalo.

re sepia erabili ditu hondo gisara, atze guztietako abiapuntu, eta harekin giro abisinar idor bete-betea ekartzen du begietara.

Kontaketa gure esku artean gertatzen da, hain literalki, ezen ematen du liburu bizirik dagoela. Liburuak pertsonaiengan ere hunkiberatasuna nagusitzen da; haur bakoitzak lehen aldiz entzungo balu bezala hartzen du ipuinaren kontaketa, emozioz beterik, harriduta, beldurtuta, adoretuta.

Komikiko irudiek txandaka erakusten dituzte elezahararen pasarteak eta txabolako kontaketa, hango bizipenak hemengo sentimenduak bihurturik, eta denak irakurlearen akuitu. Benetan teknika aratza erakusten du kontalariak, itxuraz hain simplea—kasu, soilik itxuraz!—eta egiatan hain eraginkorra.

Haurrekin irakurtzeko liburu perfektua da, bere irakaspenerekin, bere ukituxo moralizatzailearekin, kafeontziak egongela lurruntzen duen bitartean... Inguruan haurrik ez badago ere! ■ **IMANOL MERCERO**